

Jon Kortaberria Lopetegi

A maila • 2 saria

Kaixo, Jon Kortaberria Lopetegi nauzu, eta gauza xeblebre bat gertatzen zait. Musika entzutea asko gustatzen zait, baina melodiak sortzeak ez nau erakartzen. Pelikulak ikustea ere gogoko dut, baina zinelanetan ibiltzeko ez dut inolako grinarik. Berdin gertatzen zait bideojokoekin eta margolanekin. Produktuaz gozatzen dut, baina sorkuntza prozesuan parte hartzeak ez nau batere erakartzen. Literatura da erregela honen salbuespen bakarretarikoa, irakurle txarra izan arren idaztea gustatzen zaidalako. Hitz lerroz eta paragrafoz beteriko orri batekin aurrez aurre nagoenean berehala aspertzen naiz, baina papera hutsik, zuri, biluzik ikusten dudanean, hura hitzez betetzen tematzen naiz. Susmatzen dut, niri ez bezala, zuri produktu literarioak gustatzen zaizkizula, bestela ez zinateke biografia hau irakurtzen arituko. Nire susmoak egia ala gezurra izan, nere idazlana irakurtzera gonbidatzen zaitut, espero dut gustoko izatea.



EGUNEN BATEAN

Ezin lepoko korapiloa askatu.

Nahi baina ezin.

Hestu dugu sama,
suge hertsailen antzera
eztarria zanpatuz,
arnasa itoz,
mintzoa ezinduz.

Ezin barneko sua eztitu.

Nahi baina ezin.

Galdatan dugu bihotza,
burruntzi gorien antzera,
sentimenduak kiskaliz,
gogoa oldartuz,
taupadak nahasiz.

Ezin ideiak erditu.
Nahi baina ezin.
Giltzapean dugu sormena,
txori kantarien antzera,
iraultzak ukatuz,
ametsak mugatuz,
bizipenak lastatuz.

Ordezkaritxurako suge-hazle,
Buruzagiz mozorrotutako
asaldatzaile, eta aditu plantako
sarrailagile
hainbat dago munduan.
Txotxongilo gisa,
harietatik tira eta sokak tenkatuz,
beraien nahien menpeko gaituzte.
Ezin mintzatu,
ezin sentitu,
ezin pentsatu,
esklabu.

Egunen batean,
sugea kaiolan erreko dugu,
sokak moztuko ditugu,
askatasuna
berreskuratuz.
Lepoa aske,
bihotza gozo,
burua arin,
sentimenduz beteriko ideiak
lau haizeetara oihukatuz.